



# ***NAZARETEKO JESUS, HISTORIAREN AURREA***

*Geideak Movimiento de Jóvenes de Acción Católica  
Geideak Ekintza Katolikoko Gazteen Mugimendua*

Geideak Movimiento de Jóvenes de Acción Católica  
Geideak Ekintza Katolikoko Gazteen Mugimenduko  
*Miguel Ramón Vigurik Kontsiliariorak eginda.*

**Ondorengo lanak hartu ditugu oinarritzat, testu hau egiteko:**

J.R. Busto Saiz, *Cristología para empezar*, Santander, 1995<sup>4</sup>; E. Agulera, G. Castaño, J. Cortés, D. González, *Jesús, el Señor*, Madril, 1989; Iruña eta Tuter, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Katekesirako Elizbarrutietako Ordezkaritzak eta Idazkaritzak, *Jesusen bila*, Bilbao, 1999; J.I. González Faus, *La Humanidad Nueva*, Santander, 1984.

## Sarrera:

Honako lagungarri bidez, Nazareteko Jesus pertsonaia historikoari buruz ditugun datu nagusiak aurkeztu nahi ditugu. Hau da, ahal den neurrian, bere teologizatzea dela-ta, gure kultura-girora era onartezinean eta, batzutan, desitxuraturik heldu den irudia berreskuratzea da gure asmoa.

Nazareteko Jesusi buruzko erlijio tradizioak (Ebanjelioak barne) ez dira aseptikoak, eta, ostera, gureganaino kultura molde nahitaz desberdinetan iristen den bakarkako eta taldeko fede esperientzia formulatzen dute.

Baina, zerk bultzatu zituen lehenengo elkarte haiek testigantza horiek jasotzera? Ze zentzu zuen Nazareteko Jesusen beraiantzat? Eta, batez ere, ze zentzu izan dezake guretzat, XXI. mendeko kristauontzat?

Zientzia historikora jo behar dugu galdera hauei erantzuteko. Ikerketa irizpide historiko-kritikoak ezarriz berreskura dezakegu, bere ministerio publikoan lagun izan zituen bitartean, ikasleek Beratzaz izan zuten pertzepzioarekin bat datorren Nazareteko Jesusen irudia. Bepizkundearen ostean federa joko duten giza esperientzien bilakaera geure eginez, geuk ere kritikaren pean jarri ahal izango ditugu Jesusi buruz ditugun irudi faltsuak, sinesteak eta ideologiak.

## AURKIBIDEA

<b>1.- Zer dakigu historikoki Nazareteko Jesusi buruz?</b>	4
<b>2.- Zer dira Ebanjelioak? Zer dioskute Jesusi buruz?</b>	6
<b>3.- Nolako zen Jesus bizi izan zen gizartea?</b>	7
3.1.- Sanedrina	7
3.2.- Bizimodu judua	7
3.3.- Gizarte egitura judua	8
<b>4.- Jesusen mezua: Jainkoaren Erreinua</b>	9
4.1.- Seme-alaba eta anai-arreba	9
4.2.- Txiroak, maiteenak	9
4.3.- Parabolak	9
4.4.- Mirariak	10
4.5.- Otorduak	10
4.6.- Jesusen askatasuna eta autoritatea	11
4.7.- Mezu gatazkatsua	12
<b>5.- Zergatik hil zuten Jesus?</b>	13
5.1.- Merkatariak tenplutik botatzea	13
5.2.- Jesusen kondena	14
5.3.- Nola bizi izan zuen Jesusek bere heriotza?	15
<b>6.- Jesusen berpizkundea</b>	16
6.1.- Fede aitormenak berpiztuarengan	16
6.2.- Ereserki kristologikoak	16
6.3.- Hilobi hutsari buruzko kontakizunak	16
6.4.- Agerkunderen kontakizunak	17
6.5.- Zer esan nahi du gure federako “Jesusen berpizkundeak”?	17
6.6.- Jesusen heriotzaren esanahia gure fedearentzat	18
6.7.- Eliza, berpiztuaren elkarte	19
<b>ELKARRIZKETARAKO GALDEKETA</b>	20
<b>KBNERako GOGOETA PERTSONALERAKO GALDEKETA</b>	21
<b>BIBLIOGRAFIA</b>	22

# 1.- Zer dakigu historikoki Nazareteko Jesusi buruz?

Jesusen izatasun historikoaren auzia ez zen XVIII. mende bukaerara arte aurkeztu. Autore batzuk honako ideari eusten zioten: Jesus ez zela benetan existitu, kristautasuna hotsegin zuten lehenengoen asmakizuna zela baizik.

Hala ere, harrezkero historiagile serio bakar batek ere ez du eztabaidan jarri Jesusen existentzia. Gaur historiagile bakar batek ere ez du zalantzan jatzten Nazareteko Jesusen existentzia, bide historiko-kritikoetatik egiaztatu daiteke eta.

Gauza bat argi dago: Nazareteko Jesusen historikotasuna ziurtatu nahi badugu, zientzia historikoak beste edozein pertsonaia ikertzeko erabiltzen dituen irizpide eta metodo berdinetera jo beharko dugula.

Irizpide horiek, funtsean, hiru dira: era askotako lekukotasunak, kontzeptu historiko eta sozialarekiko bateragarritasuna, eta jarraitutasunik eza edo ezberdintasuna.

- a) **Era askotako lekukotasunak:** askotan, eta iturri desberdinen eskutik, aurkeztutako gertakariak berme gehiago eskaintzen dute, Jesusen bizitzan historikoki gertatutako gertakariak transmititzeko.
- b) Kontzeptu historiko eta sozialarekiko **bateragarritasuna:** Jesusek jarduten duen mundu juduaren testuinguruan kokatutako ebanjelioko datuek aukera gehiago dute historikoki benetakoak izateko. Esate baterako, bateragarritasun irizpidearen arabera, gizarte eta politika mailan entzutetsuak diren pertsonaien (Kirino, Herodes Antipa, Kaifas, Pilato, e.a.) inguruko ebanjelioen datuak zuzenak dira. Zuzenak dira, baita ere, uri, herri, mendi, ibai, eraikinen... inguruko datu geografikoak, azken mendean Palestinan egindako indusketek baieztatzen dutenez.
- c) **Jarraitutasunik eza** edo ezberdintasuna: historikoak dira garaiko mentalitate judutik, edo lehenengo kristauen ohitura eta planteamenduetatik eratorritak ez diren Jesusen ekintzak edo hitzak. Esate baterako, lehenengo ikasleek ez zuketuen asmatuko Jesusek legendaridun bat osatu zuela ukituz, hori lohi geratzea izango litzatekeelako Moisesen legearen arabera (eta lehenengo ikasleak juduak ziren eta beren kristau izatea bateragarri egiten zuten judaismoarekin, Jamniako kontzilio juduan kanporatu arte).

Jesusen historiari lekua eta data jar diezaiokegu, hau da, espazioan eta denboran koka daiteke. Jesus izena zuen, gure aldiaren hasieran Palestinan bizi izan zen eta, bere predikaren bidez, gaur kristautasuna deitzen dugun mugimendu erlijiosoa sortarazi zuen pertsonaia bat egon zen.

Hau ez da ebanjelioen bidez egiaztatzen bakarrik, eta Jesusen garaiko bibliatik kanpoko iturrien testigantza ugari dago:

- 1) Jesusen garaiko historiagile judu bakarraren idazkiak ditugu: Flavio Joseforenak. Horien artean, Kristo ondorengo 94. urtean idatzitako 'Antzinako juduak' deiturikoa nabarmentzen da. Kristo aipatzen du Kristo ondorengo 62. urtean gobernari zen Anas gaztea abade nagusia deskribatzen duenean.
- 2) Plinio Gaztea Inperioko ordezkaria izan zen itsas Beltzaren inguruko probintzietan (gaurko Turkia). Orduan, 98. urtetik 117. urtera gobernatu zuen Trajano zen Erromako enperadorea. Pliniok aholkua eskatzen dio Trajanori: ia zelan tratatu behar dituen "kristauak" deitzen duten sektako kideak, nahiz eta, egia esan, ezer txarrik ez egin, inperioren erlijioa jarraitzeari uko egiten dioten arren.
- 3) Tazito da Erromako historiagilerik garrantzitsuenetakoa. Kristo ondorengo 55. eta 120. urte bitartean bizi izan zen. 'Urte-liburuak' lanean, Augustoren heriotzatik Neron erori zen arteko enperadoreez hitz egiten du. Orokorrean, ongi dokumentatutako idazlea da, erabilitako artxibo ofizialak eta aurreko historiagileak aipatzen dituelako. Kristauak aipatzen dituen testuak Erroman 64. urtean, Neron enperadore zela, gertatutakoak kontatzen ditu.

**Iturri guzti hauen argira, Jesus existitu zela jakiteaz gain, Berari eta bere bizitzari buruzko datu historiko fidagarri batzuk ezagutzen ditugu:**

- Kristo aurreko 4. urtean jaio zen (urte horretan hil zen Herodesen erregealdian jaio zelako). VI. mendeko monje batek, Dionisio Urriak, oker kalkulatu zuen gaur ere historia kontatzeko darabilgun eguna.
- Gure aroko 30. urte inguruan hil zen.
- Bere ama: Nazareteko Maria, Joserekin ezkondua.
- Bere aberria: Galilea. Bere aberri txikia: Nazaret.
- Ama hizkuntza: aramera.
- Bere lan bizitza: “arotzaren semea”.
- Bere bataioa Joanen eskutik Jordan ibaian (horregatik historiagile batzuk Joan Bataiatzailea kide zen Esenioen elkartearen inguruan kokatzen dute Jesus).
- Laguntalde zabal batek laguntzen dio herriz herri (hamabiak, eta beste talde handiago bat, tartean emakume ugari zegoelarik).
- Predikua Galilea, Judea eta Jerusalemenean zehar.
- Bere predikua gai nagusia: Jainkoaren erregetza edo Erreinua.
- Jarduera miraritsua eta exortzista.
- Ez da apaiz judua.
- Ez da saduzearren sektako aristokrata.
- Ez da farisearren sektako kide.
- Ez du erromatarren aurkako erresistentzia armatuan parte hartzen, zelotek egiten zuten bezala.
- “Rabi” edo maisu esaten diote, baina maisu berezia da: ez du eskola finkorik sortzen, alde batetik bestera dabil. Legearen doktoreengandik eta Idazlariengandik bereizten da.
- Publikano eta bekatariekin mahaian jartzen da.
- Ez du Mesias politikotzat, Dabiden dinastiaren ondorengo eta berrezartzaitzat hartzerik nahi.
- Jainkoari ABBA esaten dio.
- Bere gurutzeko heriotza Jerusalemenean.
- Bere heriotzarekin, taldea lur jota geratu zen; eta bere ikasleak lehengo ekintzetara bueltatzen ziren.

## 2.- Zer dira Ebanjelioak? Zer dioskute Jesusi buruz?

“Ebanjelio” hitza grekotik dator, “berri ona”, “zoriona eragiten duen berria” adierazten du. Zein da berri on hori? Lehenengo kristautzat, berri on hori Jesukristo da: bere bizitza, bere predikua, bere salbamen mezua, guzti hori berri ona da, ebanjelioa da.

Guztiz garrantzitsua da berri on hau, ebanjelio hau, lehenengo kristautzat, Jesusek esan zienaren arabera bizitza dela ulertzea. Lehenengo kristauak, ezer idatzi baino lehen, dagoeneko Jesusen mezuaren arabera bizi ziren: eukaristia eta otoitzerako biltzen ziren, apostoluek Jesusi buruz egiten zituzten kontakizunak entzuten zituzten, elkarteak eratzen zituzten, e.a.

Beranduago sentitzen dute bizi zuten guzti hori idatziz jartzeko beharra. Beste batzuei helarazi behar zaie berri on hori, eta Jesusen bizitzaren testigu diren bakar horiek desagertzeko arriskua dago; beraz, idatziz jasotzen dira Jesusen egintza eta esanen bildumak.

Gero, ebanjelariak lagungarri hauek batu egiten dituzte eta batasuna ematen diete. Ebanjelioak sortzen dira.

Ezin dugu ahaztu ebanjelarien kontakizuna ez dela neutroa. Elkarte jakin batzuetatik eta elkarte jakin batzuentzat idazten dute. Idazten dutena ez dira, beraz, Jesusen biografia hutsak, ezta Jesusen bizitzako gertakizun guztiak zehatz-mehatz jasotzen dituen kronika ere.

Ebanjelariak asmo argiaz aurkezten digute Jesusen bizitza: Jainkoaren Mesiastzat duten Jesusenganako fedearen testigantza eman eta, horrela, Beragan sinesteko dei egin beste askori. Ebanjelioekin, beraz, literatur genero berria sortzen da: Jesusen bizitza “aldarri” eta berarenganako fede testigantza bezala aurkezten digute.

Lau ebanjelioak ez ziren batera idatzi. 50 urte inguru iraungo duen egite prozesua dago.

Markosen ebanjelioa da zaharrena eta Lukasek eta Mateok oinarritzat hartu dute. Markosen oinarri honek Jesusen gertakizunak kontatzen ditu batez ere: Markos iturria deitzen zaio.

Lukas eta Mateok iturri bera dute; Jesusen hitzaldiak eta esanak biltzen ditu batez ere: Q iturria deitzen zaio.

Gainera, bai Lukasek eta bai Mateok ere, berariazko iturriak erabiltzen dituzte: Lukas eta Mateoren berariazko iturri esaten zaie.



## 3.- Nolakoa zen Jesus bizi izan zen gizartea?

### 3.1.- Sanedrina

Erakunde erlijioso gorena Sanedrina zen. Gobernu erakunde berariaz judua zen.

Sanedrina (“kontseilua”) zen juduen erakunderik garrantzitsuenak. Aginte legegile, judizial eta exekutiboa zuen parlamentuaren antzekoa zen eta bakarrik okupatzaile erromatarrek jarri zizkioten mugak.

Hiru klasetako 71 kidez osaturik zegoen: zaharrak, erretiratutako abade nagusiak eta letradu edo idazlariak.

Burua, jardueran zen abade nagusia zen eta herrialdea Erromaren agintearen pean gobernatzea zen bere egitekoa.

Bere erabakiek legearen indarra dute eta erromatarrek kontua jartzen dute ezartzeko. Bere ahalmena erlijio auzi guztietara eta lege judutik eratorritako guztira zabaltzen da. Ez du heriotzara kondenatzeko ahalmenik (hau prefektu erromatarren zeregion).

### 3.2.- Bizimodu judua

Juduak legeak agindutako **jaiak** zorrotz bete behar zituen.

Hiru jai-erromesaldiak dira garrantzitsuenak: herria tenpluaren inguruan biltzen dute eta guztien fedea sendotu.

**Pazkoko** jaiak, Irteera liburuak kontatzen duen Egiptoko askapena dakar gogora. Aukera honetan, 200.000 erromes inguru joaten zen Jerusalemenera. Nisanaren 14ko arratsaldean familiak ilunabarrean jaten dituen bildotsak immolatzen dira tenpluan. Jaiak zortzi egunetan luzatzen da.

Mendekoste, berrogeita hamar beranduago, **uztaren** edo asteen jaiak izan zen lehenengo, baina, gero, gure aroaren hasieran, legearen dohaintzaren ospakizun bihurtu zen Sinain: itunaren jaiak eta honen berriztapena.

**Denden** edo txabolen jaiak da ikusgarriena. Basamortuko egonaldia gogoratzeko, familia bakoitzak adarrezko txabola egiten zuen hiri inguruan.

Jerusalengo **tenplua** zen bizitza juduaren beste ardatzetako bat. Bertan ospatzen zen egunero Yahveri zuzendutako gurtza; apaizek gauzatzen zituzten liturgi egitekoak eta sakrifizioak eskaintzen zituzten. Tenpluak Jaunak bere herrian zuen etengabeko presentzia adierazten zuen. Bi laukizuzen zentrokide zituen: bat kanpoaldean (ataria), eta bertan juduak, jentilak eta emakumeak sartzen ziren; hantxe zeuden truke eta merkatal postuak; eta bestea barrualdean: santutegia bera zen eta bitan banatuta zegoen Leku Santua (sancta sanctorum) –hemen Itunaren Kutxa gordetzen zen- eta santutegia bera banatzen zituen estalkiaz. Jentilek debekatuta zuten santutegira sartzea, eta sartu ezker, heriotzazigorra zegokien. Tenplua da, beraz, judu eta jentilaren arteko banaketaren sinbolo nagusia. Baina, gainera, judu guztien arteko komunioaren sakramentua da, batasun eta nortasun nazionalaren sinbolorik nagusia izanez. Jesusen hitz eta jarduerak batzuek eragin zuten eskandalo itzela aurrera dezakegu, izan ere –antzinako profeta handien haritik (Jeremias, Mikeas)- zalantzan jartzen zuelako Jainkoa han egotea.

Jainkoak Moisesi emandako **legea** azaldu egin behar zen eta bizitzako baldintza aldakorrei egokitu. Horrek ahozko lege edo gurasoen tradizioa ekarri zuen. Idatzizko legearen ulertze eta moldatze lana teologo eta legegile eginkizunak zituzten idazlariek egin zuten. Jesusen garaian asko alderdi farisearraren barruan zegoen eta aginte handia zuen herriaren gainean.

**Larunbata** da, erdaintzarekin batera, jarduerarik sakratuena. Atsedean zorrotzak, ekintza mugatuz eta zehatz-mehatz arautuz, atsedean hartzeko eta Jainkoa goratzeko aukera eman behar zion gizakiari.

Fededunen batzarra edo bilera den **sinagoga**. “Eliza” hitzak adierazoten duenez, elkartzeko biltzen den eraikina izendatzeko erabiltzen hasi ziren. Askorentzat urrun zegoen eta jaietan baino joaten ez ziren tenplua baino gehiago, eliza da fedea eta herriaren debozioa sendotzen den lekua.

**Gurtzak** legearen irakurketa jasotzen du, profeten testu batez argituta eta homiliarekin.

### 3.3.- Gizarte egitura judua

**Abade Nagusia** zen tenpluko arduradun nagusia eta sanedrineko burua. Duintasun handia eta egoera ekonomiko eroso zituen. Alderdi saduээрrekoa zen eta kolaborazionista aginte erromatarrekin. Bere kargua bitzita guztirako zen, baina prokuradore desberdinek komeni zitzaizenean izendatzen eta kargugabetzen zuten abade nagusia.

**Saduээрrak** herrialdeko klase altukoak ziren, apaiz aristokraziaren eta jabe handien artekoak. Politikan, aginte erromatarren lankide ziren, ordena publikoari eutsi nahian. Erliјoan, guztiz kontserbadoreak ziren: lege zaharrari lotuta zeuden eta ez zuten etortzeko zen erreinuan eta berpizkundean sinesten.

**Apaizak** 7.000 inguru ziren. Tenpluaren ardura zuten. Apaizak txiоak ziren eta oparietatik eta beren kontura bilatutako ofizioetatik bizi ziren.

**Idazlari** gehienak laikoak ziren. Garai berrien eta sortzen ziren arazoan arabera, legea azaltzea eta gaurkotzea zen beren egitekoa.

**Farisearrak** –“banandua” esan nahi duen hitza- legea ondo ezagutzen eta zorrotz gordetzen zuten (barua, penitentzia, otoitza...) gizon elizkoiak ziren. Eragin handia zuten herrian eta, esate baterako, buruzagi erlijiosoek kontuan hartzen zituzten beti beraien aholkuak. Klase ertainekoak ziren (artisauak, merkataritxiak...). Farisearrak legea ezagutzen eta betetzen ez dutenengandik banatuta egon nahi dute, lohitzat dituztelako. Nazionalistak ziren eta erromatarren aurkakoak, baina ez zuten indarririk erabiltzen, beste hau itxaronez: erromatarrek eta herrialdeko gainerako okupatzaileak kaleratuz, Jainkoaren erreinua ezarriko zukeen mesias baten etorrera.

**Zeloteak** mugimendu muturrekoa eta armatua ziren. Izenak “-ren jelskor sentitzea” adierazten du. Herriko talde pobreenetakoak –Galileako nekazariak, jornalariak eta arrantzaleak- ziren. Ez zioten zuzenean eraso egiten ejertzito erromatarri; matxinadak eta hilketak antolatzen zituzten herriko jai erlijiosoak eta batzarrak aprobetxatuz. Galileako kobazuloetan ezkutatzen ziren eta herritarren laguntza zuten. Baliteke Jesusen jarraitzaileen artean zelote batzuk egotea: Simon zelotea, Judas Iskariote...

**Herria** beheko klasea zen, herri xumea, batez ere nekazal inguruko biztanleez osaturikoa; askotan atzerritarren ondorengoak ziren eta legearen gauzarik funtsezkoenak baino ez zituzten ezagutzen eta horiek ere ez zituzten betetzen. Jornalariak, larru-ontzaileak, artzainak eta lohitzat hartzen zen lanbideren bat zuten guztiak ziren multzo horretakoak. Herrialdeko jendetzarik ugariena zen.

**Emakumezkoek** ez zituzten gizonezkoen eskubide zibil eta erlijioso berak. Emakumea aitaren menpe zegoen hamabi urte bete arte. Guri goiztiarra iruditzen zaigun adin horretan ospatzen ziren normalean ezkon-hitzak eta urte bete beranduago ezkontza egiten zen. Ordutik aurrera, emakumea senarraren menpe geratzen zen gauza guztietarako. Senarrak dibortziatzeko aukera zuen, emakumeak ez. Tenpluan, emakumeak ezin zuen zeharkatu jentilentzat eta emakumeentzat zen ataria. Sinagoga edo tenpluko gurtzan ez zuen zeresanik. Entzutea zegoen bakarrik. Laburbilduz, emakumea adin txikikotzat hartzen zen eta gizonaren menpe zegoen beti. Emakumea alarguna bazen, ez zuen inolako babesik (horregatik Biblian, alargunak –umezurtzekin batera- babesgabeen sinbolo dira).

**Baztertuak** talde jendetsua ziren. Era askotako arrazoiengatik baztertuak zeuden: erlijioa, morala eta arrazakeria. **Publikanoak** baztertuak ziren, erromatarren alokairuz, inportatutako merkantzien gaineko zergak kobratzen zituztelako. Kobratutako diruak zerga gainditu behar zuenez, irabazia izateko, gehiegikeria larregi egiten zuten eta herriak lapurtzat zituen eta gorrotatu egiten zituen. **Gaixo** batzuk, batez ere azaleko gaixotasunen bat zutenak (legenarduntzat hartzen zituzten) eta buruko edo nerbioetako gaixoren bat zutenak gizarte bizitzatik kanpo zeuden, baita erlijio bizitzatik ere. **Ezinduak** ere (herrenak, itsuak, elbarriak, e.a.) baztertuak ziren eta askotan eskale bihurtzen ziren. **Jentilak** –juduak ez zirenak- eta **bekatari publikoak** (prostitutat, adulteriogileak, e.a.) arrazoi moral-erlijioengatik baztertzat zituzten. Jesusek denak onartzen ditu, ortodoxia juduaren gordetzaileentzat suposatzen zuten eskandaluarekin.

**Samariarrak**, Israeleko enbor berekoak izan arren, mesprezatuak ziren juduen aldetik eta heretikotzat zituzten, legea benetan ez gordetzeagatik eta beste herri batzuekin nahastatzeagatik.



## 4.- Jesusen mezua: Jainkoaren Erreinua

“Jainkoaren Erreinua” eta “Zeruetako Erreinua” esamoldeak baliokideak dira. Mateok bigarrena erabiltzen du, elkarte kristau-juduari zuzentzen diolako bere ebanjelioa, eta juduek ezin dutelako “Jainkoa” hitza esan (horregatik erabiltzen dituzte “Zerua” edo “Zeruak” bezalako ordezkioak).

Dena dela, Jainkoaren Erreinua ez da ezaugarri soziologiko jakin batzuek dituen Erreinua, Jainkoaren Erregetza baizik eta batez ere. **“Jainkoa errege da”** esatea da. Jainkoaren Erreinua Jainkoa bera da gure munduan eta gure historian jarduten.

Jesusen nahia Jainkoaren Erreinua hurbil dagoela, hau da, Jainkoaren salbamenezko ekintza orain hasten dela ikustaraztea da, eta hori **bere bitartez** gertatzen da.

Hain zuzen ere, Jesus erreinuaren irudi eta zerbitzari da: irudi, Bera den eta Berak egiten duen guztian –bere hitzetan, txiro eta babesgabeenganako bere maitasun ekintzetan, bere errukizko zeinuetan, txarkeria salatzean, e.a.- dagoeneko Jainkoaren egitasmoa agertzen eta gauzatzen delako. Eta zerbitzari, bere burua oso-osorik eskaini ziolako Erreinuaren iragarpen eta gauzatzeari, Jainkoaren borondatearen arabera, inolako erreparorik gabe, bizia bera emateraino.

### 4.1.- Seme-alaba eta anai-arreba

Honetan laburtzen da Jesusen irakaspena. Hitzok, era berean, Erreinuaren sintesia dira. Jainkoak, hain zuzen ere, zera nahi du:

- **Aita** bezala aitoren dezagula, hau da, seme-alaben maitasun, konfiantza, eskerroneko harremana izan dezagula Berarekin, bere hitza arretaz entzunez...
- eta besteekiko harreman anaikorra izan dezagula, maitasun, zerbitzu eta laguntzazkoa, eta menpekotasun, gehiegikeria eta zapalketazkoa.

Are gehiago, Jesusen anaitasunezko zeiniek itxuratzen dute seme-alaba izatearen esperientzia. Seme-alaba gara, Jesusen anai-arreba garelako erakusten digulako eta, horregatik, anai-arreba bezala jardun dezakegulako.

### 4.2.- Txiroak, maiteenak

Txiroak dira, Jesusen arabera, Jainkoaren erreinuaren lehenengo jasotzaileak.

“Txiroak”, lehenengo eta behin, mundu guztiak “txiro” deitzen dituenak dira, hau da, dirurik ez dutenak, gosetiak, biziraupena ziurtat ez dutenak. Itun zaharreko tradizioaren arabera, txiroak txiro dira, Jainkoaren eskutik aldentuta daudelako. Aberastasuna Jainkoaren saria da. Txiroa denak, zerbait egingo zuen zoritxarrean egoteko (ikusuntu beretik, gaixoez ere ez dute Jainkoaren bedekapenik).

Eta, benetan, txiroak sarritan ez du legea betetzen. Baina ez gaizakeria pertsonalagatik, betetzeko aukerarik ez izateagatik baizik. Esate baterako, txiroak ezin du jadesi legeak agindutako sakrifizioak eskaintzeko behar duena. Honela, erlijio juduak **ezarritako gizarte ordena legitimatzen** zuen: ekonomikoki integratua, integratua zen ikuspuntu sozio-erlijiosotik ere. Txiroa, baztertuta geratzen zen gizarte mailan, eta baztertzailak errugabetuak ziren justifikazio erlijiosoaren bidez.

Jainkoaren borondatea aitzakiatzat hartuta, txiroak baztertzeta eskandalagarria eta onartezina da Nazaretoko Jesusentzat, bere Abbarekin zerikusirik ez duen Jainko bihozgabearen irudia eskaintzen duelako. Horregatik, ezinbestekotzat jotzen du sufritzen eta negarrez daudenekiko lehentasuna adieraztea. Baldintzarik gabeko errukizko, giza **sentsibilitatezko** auzia da, baina baita auzi **teologikoa** ere: txiroenganako maitasunarekin, Jainkoaren egia, errukitsua den Jainkoaren egia erakusten du.

### 4.3.- Parabolak

Jesusek parabolak bidez iragarri zuen Jainkoaren Erreinua. Gehienek ederto islatzen dute Jesusen garaiko giro palestinarra eta, horregatik, ezin da zalantzan jarri beren benetakotasuna.

Parabolak eskema jakin baten arabera aurkezten dira: egoera baten aurkezpena, muina (harridura sortzen du, pertsonak eta egoerak juzgatzeko ohiko era erlijiosoa hankaz gora jartzen dutelako) eta bukaera (normalean, funtsezko asmoa argitzeaz batera, harridura edo, baita ukapena ere, areagotzen du, eta hori mezuaren osagaia da, **geure bihotz-gogortasuna erakusten duelako**).

Gehienak honela hasten dira: <<Zeruetako Erreinu...-en antzekoa da>>. Edo, gauza bera dena, <<Jainkoak, gizakien artean jarduten duenean, ...-en antza du>>. Eta Jainkoaren jarrerak eta sentipenak zeintzuk diren argitzeko, Jesusek irudi arruntak darabiltza: ereitea eta arrantza, mahastizainak eta artzainak, ogia oratzen duten emakumeak eta perlen salerosleak, ezkontzako banketeak eta etxetik alde egiten duten semeak... Azken batean, Jesusek Jainkoaren presentzia operatiboa erakutsi nahi du, eguneroko bizitzako gertaerak abiapuntutzat hartuz.

Errukia da Jainkoaren jardueraren ezaugarriak funtsezkoena. Jainkoa ondo portatzen da gurekin, ez merezi dugulako, **Bera ona delako** baizik (are gehiago: **Bera da ona bakarrik**). Hauxe da Jesusen mezuaren alderdirik iraultzaileena. Ez da zoriona bertutearen fruitua (planteamendu moralista), bertutea Jainkoak maite dituela zorionez sentitzen dutenen doako aurkikuntza da.

#### 4.4.- Mirariak

Jesusek beren garaikideentzat “mirariak” ziren ekintzak egin zituen. Kontu handiz erabili behar dugu hitz hau, ekintza mota jakin baten aurretik, egiteko **era** –teologala- adierazten duelako, eta agertzeraz ematen duen salbamenezko **ikuskeratik**.

Normalean, ikuspuntu zientifikotik azaldu ezin den gertaera miresgarriaren aurrean gaudenean hitz egiten da mirariak. Hala ere **ikuspuntuko zientifikotik azaldu ezin daitekeen guztia ezin da**, besterik gabe, **miraritzat hartu** (gaur zientifikoki azaldu ezin daitekeena, bihar azal daiteke...). Adibidez, 1858tik 1987ra 3.000 sendaketa berezi baino gehiago jaso da Lourdesen, baina Elizak 64 bakarrik hartu ditu mirarizkotzat. Zergatik? “Miraria” kategoria ez dagokiolako zientziaren hizkuntzari, hizkuntza erlijiosoari baizik. Mirariaren hipotesia sortzen, gorpuzten eta ezartzen bada, sendaketa egiten den **testuinguru erlijiosoaren** araberakoa da. Hau da, fedearen bidez baino ezin da aitortu gertaera batean, Jainkoaren agerpen salbatzailearen zeinua. Ez da harriztekoa ebanjelioek ere bere inguruan miraririk egiterik izan ez zuen Jesus aurkeztea, jendeak ez zuelako ezagutzen eta ez zutelako federik Berarengan. Era berean, nahiko adierazgarriak dira Jesusen esaldiak: “zure fedea sendatu zaitu”, “zure fedea salbatu zaitu”. **Fedezko** testuingurua funtsezkoa da Jainkoaren esku hartze salbatzaileaz hitz egiterakoan.

Horregatik, mirariak ezin dira apologiaren bidez interpretatu (Jesusen jainkotasunaren defentsa bezala). Jesusek ez du bere jainkotasuna erakutsi nahi gertaera miragarrien bidez (hori jende apalaren bizitza arruntarekin bat egitean oinarritzen den bere gainerako irakaspenaren aurka legoke). Jesusek egindako mirariak fedezko testuingurua ezinbestekoa duten Erreinuaren presentziaren **zeinuak** dira, batez ere eta bereziki.

Honen haritik, egiten dituen mirari batzuk, pentsamolde erlijioso juduaren ikuspuntutik, benetan **kontrakulturalak** dira. Jesusek, legendaria ukituz sendatzen duenean, pertsona lohiak ukitzea debekatzen duen legea hausten du. Horregatik, eskandalagarria da judu ortodoxoarentzat, Jesusek zeinu horren bidez Jainkoaren hurkotasuna adierazi eta gauzatu nahi izatea. Era berean, larunbatez paralitikoak sendatzen duenean, larunbataren legea hausten du. Mirari honen bidez, legearen letra bere espirituaren arabera birkokatuko du: “Zer egin daiteke larunbatean? Gaitza ala ona? Gizaki bat salbatu ala hiltzen utzi?”.

Hala ere, Jesusek egiten dituen zeinuen apurketa eta gatazka izaera horretan dago baztertuentzat itxaropen izpi berria: maite dituen Jainkoa dago, eta maitasun hori beraien txirotasun eta abandonu egoera konpartitzeagatik mundu honetako agintariei aurre egiteko prest dagoen gizonaren bidez adierazten du. Jesusek bere bizia jokoa jartzen du beraien alde egiteko, eta Jainkoaren izenean egiten du.

Hori, Jesusi esker Jainkoaren seme-alaba direla sentitzeak itzultzen die beren berariazko giza duintasuna. Horregatik dio Jesusek, Jainkoaren Erreinuaren presentziaren zeinua “txiroak ebanjelizatuak direla” dela, hau da, txiroek beraien gauzatat sentitzen dutela Berri Ona. **Salbatuak** sentitzen direla. Horixe da mirarien muina. Eta ez ekintza miresgarri baten edo ez hain miresgarriaren azaleko itxura (pentsa dezagun, baita ere, “miragarria” oso erlatiboa dela: gaur gauza erabat arruntzat ditugu duela urte batzuk ia naturaz gaindikotzat hartzen zirenak).

#### 4.5.- Otorduak

Otorduek garrantzi handia izan zuten Jesusen bizitzan. Jesusek maiz bazkaldu zuen publikano, bekatarik eta prostitutekin. Baztertuekiko otordu hauek ere Jainkoaren, Erreinuaren presentziaren zeinu dira. Otordua, eta bereziki afaria, adiskidetasun, konpartitutako **intimitate** zeinua da juduarentzat. Jesusek bekatariekin jaten duenean, farisearren eta ‘pentsaera zuzeneko’ kritikak jasotzen ditu. Gogora dezagun Zakeo publikanoaren pasartea. Jendea zain zegoen Nazareteko profeta ikusteko, baina bazkaltzera Zakeoren etxera doala ikusten dutenean, eskandalizatu egiten dira eta kritikatu egiten dute. Jesusek bekatariei adiskidetasuna eta intimitatea adieraztea (maitasunezko eta baldintzarik gabeko harrera), eskandalagarria da legea gordetzen dutenentzat nahiz herri xumearentzat: “Horrek harrera ona egiten die bekatariei, baita beraiekin jan ere!” (Lk 15, 2).

Horregatik, Eukaristia da Jesusen mezu eta bizitzaren funtsa. Inor kanpoan geratzen ez zen otorduekin, Jesusek Jainkoa nor zer erakusten zuen: maitasun beteaz, denak onartzen ditu, baita bekatiariak ere.

#### 4.6.- Jesusen askatasuna eta autoritatea

Jesusek hitz egiterakoan eta jarduterakoan erakusten duen askatasun pertsonala bere nortasunaren ezaugarri benetan ziragarria da: bere barne autoritatea eta askatasuna gizaki, gizatalde eta erakundeen aurrean.

Jendeak Jesusen hitz eta ekintzen indarra, bere koherentzia, sumatu zuen: “Haren irakaspenaz txunditurik zegoen jende guztia, nagusitasunez irakasten baitzien eta ez lege-maisuak bezala... Guztiz ikaraturik gelditu ziren denak, elkarri galdezka: Zer dugu hau? Irakaspen berria, eta nolako nagusitasunez emana gainera!” (Mk 1, 22.27).

Izan ere Jesusek bere askatasun pertsonala adierazten du judaismoaren erakunderik indartsuenen aurrean: tenplua, larunbata eta legea.

Jerusalengo tenplua erlatibizatzen du, “egiazko adoratzaileek Aita egiaren arabera eta Espiritua eraginda adoratuko dutela” (Jn 4, 23) aldarrikatuz.

Moisesen lege santuaren interprete bihurtzen da: “Badakizue legean aurrekoei agindu zitzaiena..., baina hara zer diotsuedan...” (Mt 5, 20-48). Lehenengo pertsonan hitz egite horrek –“**Nik** diotsuet”- hitz egitean erakutsi nahi duen nagusitasuna berarengan dagoela adierazten du. Jesusek ez du Moisesen autoritatea aipatzen: Moisesen legea (Jainkoaren hitza dena) zuzentzen du, **bere** autoritatea gainetik jarritz. Honek zera adierazten zuen: bere autoritatea **jainkotiarra** zela.

Legearen balioa eta legea betetzea azken muturreraino handitzen duen, baina motibazioa eta jarrera sakona alde batera uzten duen legalismoaren aurrean, Jesus zorrotza da: “Ai, zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Barazkirik kaxkarrenen hamarrenak ordaintzen dituzue, eta legeko gauzarik garrantzizkoenak, berriz, zuzenbidea, errukia eta leialtasuna, bazterrera uzten!” (Mt 23, 23).

Bere burua aske zegoen familia lokarri eskusibistetatik: “Nor dira nire ama eta nire anai-arrebak?... Jainkoaren nahia egiten duena, horixe dut nik anaia, arreba eta ama” (Mk 3, 31-35).

Diruaren eta pilatzeko nahiaren aurrean: Ez pilatu mundu honetan zeuen aberastasunak, sitsak eta herdoilak jaten baitituzte hemen, eta lapurrak etortzen harrapatzera” (Mt 6, 19). “Kontuz! Gorde dirugosetik, ondasunek ez baitiote inori bizia segurtatzen, ugari izanda ere... Horra zer gertatzen zaion, Jainkoarentzat aberats izan beharrean, beretzat ondasunak pilatzen dituenari” (Lk 12, 13-21). Esanguratsua da: “Ezin zaitezke Jainkoaren eta diruaren morroi izan” (Lk 16, 13). “Azeriek badituzte zuloak eta aireko hegaztiekin habiak; Gizonaren Semeak, ordea, ez du burua non ezarri” (Lk 9, 58).

Nondik datorkio Jesusi indar eta askatasun hau? Erreboltari, probokatzailerik eta moldatu gabe hutsa ote da?

Bekatiari, **Jainkoaren barkamena** eskaintzen die: “Seme, barkatuak dituzu bekatuak” (Mk 2, 1-12; Lk 7, 36-50).

Barkamenaren emate doako eta eskuzabal honek jainko nagusitasunaz jokatzeko Jesusen asmoa erakusten du, izan ere... “Zer ari da hori horrela? Nork barka ditzake bekatuak, Jainkoak berak baizik?” (Mk 2, 7).

Jesusen jainko autoritatea adierazten duen beste gauza bat Aitari **Abba** esanez zuzentzeko era berezia da. Haur txikiak gurusoengana jotzeko (aita, ama) erabiltzen dute. Garaiko juduei bururatuko ez zitzaien konfiantza eta etxekotasunez zuzentzen da Jainkoarengana.

Honek erabateko zirrara eragin zien lehenengo kristauei eta, horregatik, ez zuten hitz hau grekora itzuli eta jatorrizkoari eutsi zioten arameran, Jesusek ahoskatzen zuen bezala. Izan ere, Jesusek Jainkoarekiko harreman bakarra, besteek ez bezalakoa, bizi duela sentitzen du. Ikasleei hitz egiten dienean ere, ez die “gure” Aitaz hitz egiten, “nire” Aitaz baizik edo, besterik gabe, “Aitaz”.

#### 4.7.- Mezu gatatzakatsua

Jesusek arrakasta du hasieran. Jarraitu egiten diote, bere zeinuengatik eta orain oinazetan eta zapalduta eta baztertuta dauden guztiei zoriona ekarriko dien Erreinuaren berehalako etorrera iragartzeagatik. Hala ere, Jesusen mezuan bere ministerioaren garapen gatatzakatsua eragin zuten osagaiak daude:

- Jainkoaren Erreinuaren etorrerak zera dakar: Israelen euskarri den politika eta erlijio egitura, hau da, legea eta tenplua, gainditzea. Horrek farisear eta saduzearrekiko enfrontamendua ekarriko du.
- Bigarrenez, Jesusekin Erreinia datorrela ez da hain nabarmena. Esan dugu fedea eskatzen duela. Baina egiten dituen zeinuak, eta baldintzarik gabeko errukizko mezuak era askotara uler daitezke. *“Honek Belzeburen indarrez botatzen ditu deabruak”*. Sasi-profeta izatearen salaketak gero eta nabarmenagoak dira eta salaketa horrek eramango du heriotzara.
- Hirugarrenez, “merituaren” planteamendua gainditzen duen Jainkoaren Erreinuaren doako eskaintzak farisear eta idazlarien (boluntarismo moralistaren ordezkarien) aginte morala zalantzan jartzen du.

Jesusek gatatzakatsua-maila hirukoitz hau onartzen du **Jerusalenera igotzea** erabakitzen duenean. Jerusalenera igotzen da, profeta guztien han agertu behar dutelako. Jesusek badaki Erreinuaren berehalakotasun eta doakotasunari buruzko bere predikua Jerusalemenean ere entzun egin behar dena. Mesiasek Jerusalemenean agertu behar zuten, eta bere ministerioak konnotazio mesianiko argiak ditu.

Dena dela, Jesus azaltzeak agintarietarako gatatzakari aurre egitea dakar nahitaez. Aurretik ere saiatu ziren lintxatzen, eta bere aurkako konplota prestatu zezakeena bazekien. Horregatik esan dezakegu historikoki Jesusek, bere ministerioa koherentziaz betetzeko hautua egitean, bere bizia jokoan jartzen zuela. Are gehiago, Jerusalemenean azaldu ostean bizirik ez irauteko aukera handiak zituela. Aurreikusitako ote zuten Jesusen bere heriotza? Beharbada, baina ez Jainkoa zelako, bere ministeritza publikoan aginte erlijiosoarekin izan zituen gorabeherengatik baizik.



## 5.- Zergatik hil zuten Jesus?

Jesusen heriotza ez zen heriotza “arrunta” izan. Jesus ez zen besterik gabe hil benetako gizona zelako eta, gizaki orok bezala, hil egin behar zuelako. Jesus akabatu egin zuten: Israelgo agintari erlijiosoek heriotzara kondenatu zuten, eta aginte erromatarrak sententzia burutu zuten.

Baina, prozesu erlijioso-politiko bikoitzean sakondu aurretik, egokia da izan daitekeen ikuskera bikoitza argitzea: historikoa edo teologikoa, izan ere ikuskera bakoitzak erantzungo dituen galderak desberdinak direlako: Zergatik hil zuten Jesus? Zerk bultzatu zituen Kaifas eta Pilato horrela jokatzera? Eta ikuspuntu teologikotik, zergatik diogu Jesusen heriotzak salbatu egiten gaituela? Hil egin behar zuen gu salbatzeko? Nola liteke norbaiten heriotza salbatzailea izatea guztiontzat?

Ikuspuntu historikotik, Jesusen heriotzaren zergatira gehien hurbiltzen gaituen kontakizuna merkatariak Jerusalemgo tenplutik bota zituenekoa da.

### 5.1.- Merkatariak tenplutik botatzea

Lau ebanjelioek ematen dute kontakizun honen berri. Baina desberdintasun txiki bat dago: sinoptikoetan azkenean dago, nekaldiaren kontakizunaren aurretik. Alderantziz, Joanen ebanjelioan bigarren kapituluan agertzen da. Zalantzarik gabe, Jesusen bizitzaren azkenaldian gertatu zela esan daiteke. Joan ebanjelariak hasieran jartzen du, bere asmo teologikoaren arabera, Jesusek tenpluan izan zuen jokaerak ia bere mezu eta misterio osoa laburbiltzen dituelako.

Markos eta Lukasen ebanjelioetan, gertaera honetatik aurrera juduak Jesus hiltzeko aukeraren bila ibili zirela esaten zaigu. Eta Markos eta Mateoren ebanjelioetan beste hau jasotzen da: Jesusek tenplua suntsitzeko mehatxua egin zuela salatu zutela Kaifasen aurrean: “Honek esana du: Jainkoaren santutegia desegin dezaket eta hiru egunetan berreraiki” (Mt 26, 61 eta par.). Era berean, Markos eta Mateoren ebanjelioetan, juduen burla honela gauzatzen da gurutzean: “Santutegia desegin eta hiru egunetan eraikitzen omen dauan horrek, Jainkoaren Semea baldin bahaiz, salba ezak heure burua! (Mt 27, 40 eta par.). Azkenik, Jesus hiltzean, tenpluko estalkia apurtu egiten dela transmititzen digute hiru sinoptikoek, helburu teologiko argiaz: Jesusen gurutzeko sakrifizioaz, herriari Jainkoaren aurrera sartzeari galarazten dion oztopoa deuseztatu egiten da; eta horrekin batera, abade nagusiek (beraiek bakarrik zuten estalkia zeharkatzeko eta herriaren izenean Jainkoari sakrifizioak eskaintzeko baimena) eta abadeek zituzten klase pribilegioak. Aurrerantzean, Jainkoaren presentzia zuten eta berehalakotzat hartu behar da gizaki bakoitzaren bihotzean; eta benetako gurtza, “espirituan eta egian” (Jn 4, 21) eskaintzen dena da.

Beste alde batetik, Markos, Mateo eta Lukasengan, Jesusek Jerusalemenera igotzean egiten duen profetia agertzen da: “begira zein tenplu ederra dugun...; eta Jesusek erantzuten du: ‘ikusten dituzue gauza miresgarri horiek?: ez da harririk harriren gainean geratuko’. Hau **profetia** da, ez asmakizuna delako, madarikapena baizik, **tenpluan oinarritutako logika erlijiosoaren aurkakoa**. Jesusek ez dela harririk harriren gainean geratuko dionean, tenpluaren aurkako madarikazioa botatzen du. Eta, juduentzat, Yahveren presentzia Jerusalemgo tenpluan beren erlijioaren bigarren dogmaren antzekoa zen. Lehenengo dogma hauxe da: Jainkoa bakarra dela (Yahve). Bigarrena aipatu dugun hori: Jainko horrek tenpluko sancta sanctorum duela bere oinen aulkitzat.

Horregatik, tenplua desegina izango dela esateak zera esan nahi du: edo Jainkoa ez dela han biziko (Israel, dagoeneko, ez dela herri aukeratua esan nahiko luke horrek), edo Jainko horrek ez duela bere etxea babesteko adina indarrik. Bi kasuetan, tenplua zalantzan jartzea, **Israelgo Jainkoa zalantzan jartzea da**.

Kristau fedearen lehenengo martiria, Esteban, harrikatua izan zen. Eta salaketa hau egin zuten bere aurka: urte batzuk lehenago gurutziltzatu zuten Jesus tenplua desegiteko itzuliko zela esatea (Eg 6, 14). Ikusten dugunez, tenpluaren aurkako Jesusen profetia-madarikazio horrek eskandalu itzela eragin zuen garaiko agintari juduen artean.

Alde askotatik egiaztatuta dago, beraz, eta bat dator ingurugiroko mentalitate juduarekin, Jesus-tenplua-desegitea ideien arteko lotura.

Beste alde batetik, jarraitutasunik ezaren irizpidearen arabera, merkatariak tenplutik kanporatuak izan zireneko gertaera ez zuketarik ikasleek asmatuko, ezin da-ta erraz lotu Jesusek bere bizitza publikoan zehar erakutsitako prediku eta zeinu errukitsuekin. Are gehiago, Jesusen irudiaren desohorerako ekintza da. Horregatik erabateko fidagarritasun historikoaz esan dezakegu pasarte hura benetan gertatu zela, eta horrek eragin zuela bere atxiloketa, epaiketa eta heriotzako kondena.

Baina, zehatz-mehatz, **zer** egin zuten Jesusek tenpluan, eta **zergatik** egin zuten?

Dirudienez Jesusek tenplu atarian egiten zen merkataritza jardueraren aurka protestatzen du. Tenpluaren otoitz-sena berreskuratu nahi du. Baina bere ekintza, harago doa benetan.

Hain zuzen ere, Jerusalemgo tenpluko atarian usoak eta ardiak saltzen dira eta dirua trukutzen. Kulturako behar diren abereak saltzen dira. Eta dirua trukutzen da, Jainkoari diru garbia eta, beraz, tenpluan egindakoa, eskaini behar zaiolako bakarrik. Juduak Mediterraneoan zehar bizi ziren, Erroman, Korinton, e.a. Jerusalemara erromesaldian heltzen zirenean, beren lurraldeko dirua diru garbiz trukutzen zuten, tenpluko eskaintza egiteko.

Jesusek diru-trukatzaileen eta uso-saltzaileen mahaia irauli eta tenplu inguruan salerosketak egitea galarazten duenean, gurtza sistema judua geldiarazten du (Jerusalengo ekonomia jardueraren zutabe nagusienetakoaren aurka egiteaz batera). Zeinu profetiko honen bidez zera adierazi nahi dute: tenpluko gurtza sistema ez dela Jainkoak nahi duena eta, ondorioz, ezin dela horrela sakrifizioak eskaintzen jarraitu.

Jesusek, “nire etxea otoitz etxea da eta ez alprojen etxea” dionean, Jainkoarenganako benetako gurtzak juduen eta jentilen, gizonezkoen eta emakumezkoen, osasuntsuen eta gaixoen artean, hau da Yahveren balizko bedeinkapena dutenen (eta tenplura sar daitezkeenen) eta ezin dutenen artean **bereizketarik ez egotea** eskatzen duela. “Alprojak” ez dira diru-trukatzaileak eta saltzaileak bakarrik, tenpluan sartu aurretik, txiroa zapaldu eta baztertuta marjinatuta, Jainkoaren aurrean beren kontzientziak lasaitzeko otoitz egitera doazen guztiak baizik.

Kaifasen ustetan, tenpluaren funtzionamendua da Jainkoari gurtza eskaintzeko bide zuzena. Eta zergatik ez zuen sinetsiko, Israelen historia osoan zehar eta Itun Zaharrean bertan Jerusalemgo tenpluari emandako garrantzia kontuan izanik? Jesus iraultzaile bat zen harentzat, Jainkoa “espirituz eta egiaz” gurtu behar dela, Jainkoak pertsona guztiak mugagabeko maitasunaz maite dituelako, judu eta jentilen artean ez dela bereizketarik egon behar, e.a hots egitea baino gauza hoberik bururatzeko ez zaion iraultzailea hain zuzen ere. Mundu osoa sakratua da, Jainkoa leku guztietan eta pertsona guztiengan dagoelako. Pertsona bat ez da santua izango tenplura erreztatzen etortzeagatik, bere eguneroko bizitzako baldintza arruntetan Jainkoaren erruki eta justiziazko borondatea gauzatzen duelako baizik. Guzti hau, ordena erlijioso tradizionala erabat azpikoz gora jartzea beste da eta, larriagoa dena, herri juduaren balizko nagusitasun nazionalaren (herri aukeratua) oinarri teologikoa zalantzan jartzea.

## 5.2.- Jesusen kondena

Jesusek ikuspuntu sozio-erlijiosotik guztiz kontrakulturalak eta subertsiboak diren zeinuen bidez iragartzen du Jainkoaren Erreinuaren berehalako etorrera. Horregatik, Kaifasek ondorengo itauna du aurrez aurre: Jesusekin benetan iristen da erreinu mesianikoa eta, beraz, gure ohitura, ideia eta estatus erlijiosoak okerrak dira, ala ez da egia eta Jesus itxuratia, sasi-profeta eta biraolaria da?

Ondorengoa dio Legearen artikuluko batek: “Nik agindu gabeko mezua nire izenean adierazten edota jainko arrotzen izenean hitzegiten ausartzen den profeta hil egingo dute” (Dt 18, 18-20).

Biraoa, besterik gabe, Jainkoari egia ez den edo bere egiarekin bat ez datorren zerbait egotea da. Kaifasen iritziz, zer gezur egotzen dio Jesusek Jainkoari? Ba, gizaki ororen Jainko Aitarekiko seme-alabatasun unibertsalak gauzatu behar duen **anaitasunari** buruz duen ikuspuntua. Jainkoak bere seme-alaba guztiei dien baldintza gabeko eta doako maitasunean oinarritutako **erabateko berdintasunaren** adierazpena den anaitasun hori. Doakotasun horrek adoretzen duen doakotasun eta anaitasun errukitsua da onargarri ez dena **konplimenduan** eta **merituan** eta honek dakarren profano eta sakratuaren, garbi eta lohiaren arteko bereizketan eta banaketan oinarritutako erlijiozkotasunarentzat.

Jesusen kasua Pilatori aurkeztean, biraoaren salaketa erlijiosoa kategoriatik politikoetara itzultzea da Sanedrinak egiten duen gauza bakarra: Jesusek asmo mesianikoak ditu, Berarekin Jainkoaren Erreinu iristen dela aditzera ematen duelako. Erregetasun asmoekin aurkezten dute, beraz, eta hori onartezina da lege erromatarrarentzat. Bere buruari errege autoritatea egotzen diona Zesarren lehiakidea da, iraultzaile politikoa.

Egia da Pilato arrazoi hauek onartzearen aurka dagoena, baina azkenean amore eman zuen eta Errugabea, Zuzena, heriotzara kondenatu zuen.

### 5.3.- Nola bizi izan zuen Jesusek bere heriotza?

Jesusek bere heriotza bizitzeko izan zuen moduan adierazten da nolabait gero doktrina eta teologia kristauak, bere heriotza salbatzailea dela esatean, egotzi dion adiera sakona. Nahiz eta berpizkundearen azterketaren ostean egon bakarrik Jesusen heriotzak gure fedearantzat duen esanahia aipatzeko baldintzetan.

- Bistakoa da Jesusek bere heriotza **aurreikusit** zuena, edo etorriko zela sumatu zuena. Ikuspuntu historiko-kritikotik arrazoak serioak daude azken afarian (eukaristia ezarri zenekoa), gainera zetorkionaren inguruan ikasleak ohartarazten saiatu zela eta fedetik zentzua ematen ahalegindu zela pentsatzeko. Nahiz eta apostoluek ezertxo ere ulertu ez.
- Jesusek, benetako gizon izanik, **beldurrez** eta **larritasunez** bizi izan zuen bere heriotza: “Abba, Aita! Zure esku dago guztia; urrun ezazu niregandik edari samin hau!” (Mk 14, 36).
- Baina ihes eta atzera egin gabe, **leial** eta uneoro Aitarekin bat eginda iraunez: “Baina egin bedi zure nahia, ez nirea” (Mk 14, 36); “Aita, zure eskuetan jartzen dut bizia” (Lk 23, 46).
- **Aktibo** eta kontzienteki uztartu zuen heriotza bere jokoaren. Jesusek norbere buruari uko egitea jarraipenaren ardatz bezala jartzen badu (Mk 8, 34), bere bizitza bide horretatik –erabateko eskaintza- zuzendu behar duela ikusten duelako da.
- Baina, horregatik, ez zuen heriotza bere bizitzako “jomuga” bihurtu. Ez Jesusen predikua, ezta bere jarrera ere, ez daude inoiz heriotzari begira edo haren menpe. Eta puntu honetan, sinoptikoen testigantza Joanena (teologizatuagoa da) baino fidagarriagoa da historikoki.
- Heriotza aktiboki integratuz, Jesusek Erreinuaren aldeko **zerbitzuzko** adiera eman zion, bere bizitza osoan erakutsi zituen apustuen hari beretik. Hala ere, zentzu hau ez zuen bizi izan bere heriotzari anbiguotasuna kentzen zion zerbait bezala. Gurutzeko bere misioaren erabateko porrotaren mehatxua bene-benetan eta indarrez bizi izan zuen.
- Bere heriotzaren zerbitzuzko adiera Jainkoarenganako apustu fidakor bezala (bizitza osoan zehar bere ABBArengan jarri zuen erabateko konfiantzazko esperientzian oinarritua) bizi izan zuen Jesusen, baina **apustu** bezala azken batean. Eta apustua izan zela diogunean, Jesusek **ez** zituela alde aurretik Jainkoaren egitasmoak **ezagutzen** esan nahi dugu. Horrek zera esan nahi du: Jainkoaren erreinua bere gurutzeko heriotzatik nola eta –batez ere- zergatik igaro behar zuen ere ez zekiela. Eta, jakina, ez zuen ezagutzen eta ez zuen inola aurreikusit berpizkundea. Hau ezustean gertatu zen; berritasun beteaz jantzitako gertaera izan zen. Hau da, Jesusek bere deuseztapen pertsonalera (eta tortura fisiko eta psikologikoen erdian gertatzen den deuseztapenera) bultzatua dela argitasunez ikusten duenaren zama dramatikoaz bizi izan zuen bere heriotza.
- Eta, azkenik, apustu hori barkamenaren bidez gauzatzen du. Jesus, bera akabatzen dutenei **barkatuz** hiltzen da: “Aita, barka iezaiezu, ez baitakite zer ari diren” (Lk 23, 34). Jesus Jainkoaren errukia eta barkamena aldarrikatuz hil zen, hau da, bere bizitza osoan egin zuena eginez. Honela, maitasuna heriotza baino indartsuagoa dela adierazten du. Horregatik bakarrik da posible itzaropena. Nahiz eta, jakina, ikasleak berpizkundearen esperientziaren ostean iritsi bere heriotzaren salbamenezko izaerara. Horregatik, Jesusen gurutzeko heriotzak gure federako duen esanahia aztertu aurretik, bere berpizkundearen esanahia aztertuko dugu.



## 6.- Jesusen berpizkundera

Hain zuzen ere, ikasleek, berpiztu dela kontrastatzen dutenean ulertzen dute Jesusen heriotza salbamenezko jazoera bezala. Orduan ikusten dute Jainkoa Jesusekin dagoela eta zegoela, itxurakeria guztien gainetik. Porrot eskandalagarritzat ulertu zutena, ezuste eta errebelazio bezala, Berri On bezala ikusten dute orain. Gurutzea Jesusen bizimoduaren, txiroen aldeko aukeraren, Erreinuaren iragarpenaren ondorioa da. Jesusen Aitarenganako eta gizaki guztienganako leialtasunagatik bere egiten duen gurutzea. Erreinuaren aldeko Jesusen esanekotasuna gurutzean, berpizkunderaren ostean berretsiko den logika da: berpiztua gurutziltzatua da.

Jesus berpiztu izan ez balitz, honela azalduko zatekeen gizateriaren historian: doktrina erakargarria hotz egin zuen, predikatu zuena leialtasunez jarraitu zuen, baina, bizitzaren bukaeran porrot egin zuen gizon bezala: bi gaizkileren artean eta ikasleek abandonatua hil zen.

Hala ere, Jesus hil eta egun batzuetara, bere jarraitzaileek bizirik dagoela diote. Zer gertatu zen? Azalpen bakarra dago: bere ikasleek Jesus berpiztu egin zela sendo uste zutela. Gertaera honen ostean ulertu zuten bakarrik nor zen Jesus benetan; orduan jabetu ziren bakarrik Berak egin zuen egintzaren tamainaz.

Jesusen garaiko israeldar askok gizakiaren bizitza heriotzan ez zela bukatzen uste zuen arren, inork ez zuen inoiz izan berpizkunde esperientziarik. Jesusengan bakarrik bihurtu zen gertaera berpizkunderaren itxaropena. Eta gertaera hau hil ala bizikoa da, beronek eragiten, ahalbideratzen eta eusten duelako kristau fede osoa.

Nolako testuek azaltzen digute berpizkundera? Funtsean, fede aitormenek, ereserki kristologiko primitiboek, hilobi hutsari buruzko kontakizunek eta agerkundearen kontakizunek.

### 6.1.- Fede aitormenek berpiztuarengan

Jesusen berpizkunderaren testigantza ematen duten esaldi laburrak dira. Korintokoei zuzendutako Lehenengo Gutunean transmititu zaigu idatziz Jesusen berpizkunderaren lehenengo testigantzetako bat: “Neuk hartu nuena bera eskualdatu nizuen lehen-lehenik, hau da: Kristo gure bekatuengatik hil zela, Liburu Santuek esan bezala; horribatu egin zutela eta hirugarren egunean biztu egin zela, Liburu Santuek esan bezala; Pedrori agertu zitzaioa, eta ondoren Hamabiei”. (I Kor 15, 3-5).

### 6.2.- Ereserki kristologikoak

Ereserki hauetan laburbiltzen da Kristoren, bere heriotza eta piztuaren misterioaren esanahia. Hasierako Elizak Eukaristiaren eta beste liturgia batzuen ospakizunetan erabiltzen zituen konposizio poetikoak dira.

Filosofia edo jakituria erako espekulazioen eta hainbat tradizio juduren eraginak dituzte. Adibide erara, ereserki hauek aipa ditzakegu: Kol 1, 15-20 eta Flp 2, 6-11.

### 6.3.- Hilobi hutsari buruzko kontakizunak

Puntu honetan, ohar garrantzitsu bat kontuan hartzea komeni da, gauzak ez nahastatzeko: hilobi hutsaren kontakizunak berpizkundera sinesteko lagungarritzat eskaintzen dira, baina honek ez du esan nahi fede hori Jesusen hilotzaren **suspertzean** edo bizkortzean oinarritzen denik.

Jesus ez zen suspertu, **berpiztu** baizik. Ez zen bizitza honetara itzuli (Lazaro edo Jairoren alabaren antzera), berriz ere hiltzeko. Alderantziz, Jainkoaren beraren bizitzan sartu zen.

Berpizkundera **garrantzi handiko** gertakizuna da (espaziotik eta denboratik harago dago, gizakundera edo kreazioa bezala). Ezin da metodo zientifiko edo enpirikoaren bidez frogatu edo egiaztatua. Nahiz eta hilobian kamera bat egon filmatzen, berpizkundera ezin zitekeen jaso (kreazioa edo gizakundera filmatzea ezinezkoa den bezala: eta, kontuz, ez ditzagun nahasi “kreazioa” eta “Big Bang”a, edo “gizakundera” eta “kontzeptzioa”! Une honetan bertan, sortuak, izatean eutsiak gara Jainkoaren aldetik; baina filmatzen gaituen kamerak ezin du ekintza transzendentala hori jaso. Fedeari dagokio bete-betean. Jesusen berpizkunderaren ondorioz ikasleen elkartean gertatu ziren jazoerak bai azter daitezkeela historikoki.

Hilobia hutsik aurkitzeak ez du berehala fedearen sortzen, galderak sortzen ditu bakarrik eta, gehien jota, sinesteko bidea zabaltzen du. Ondorioz, Jesusen gorpua hilobian aurkitu izan balute ere (edo gaur aurkituko balitz, oraintsuko eleberri eta pelikulen gaia), horrek ez luke ondorioz izango berpizkunderaren aurka. Jesusen gorputz fisikoa, printzipioz, ez da beharrezkoa berpizkunderarako. Beste gauza bat da, benetan, berpizkundera eragina duela Jesusen **gorpuztasunean**: ezin da “gorpuztasuna” “gorputzarekin” nahastatu. Kontua ez da nik gorputza **dudala**, izaki korporala **naizela** baizik. Nire



gorputza **materia** da. Nire gorputzasuna **neu** naiz espazioan eta denboran aditzera ematen naizelako (eta hori bat dator gorputzaren ikuskera juduaz: “arima azaleratuz” da).

Bi gauzok nahastatzeak zalantza bitxiak ekarriko lituzke: ze gorputzekin berpiztuko gara? **Zein** da benetan nire gorputza? Nire gorputza etengabe berritzen delako. Ikuspuntu fisiko-kimikotik, gure organismoaren zelula guztiak zortzi urtean behin berritzen dira. Hala ere, “nire organismoa” eta “nire gorputza” aipatzen ditugu, organismo edo gorputz bera izango balitz bezala. Zein da, orduan, bere nortasun oinarria? Nire gorputzasuna, nire izatearen beraren izaera korporala.

Berpizten naizenean, korporalki egingo dut, eta horrek nire zelula hilak piztu egingo direla esan nahi du. Berpizkundera ez da hilotzaren suspertze fisiologikoa, Jesus Jainkoaren behin-betiko bizitzan sartzea da, eta gertakizun hau –aipatu dugunez- gure espazio-denborako koordenadetatik harago gertatzen da. Gertaera transzendentala da. Horregatik, Elizaren doktrinak Jesus gorputzez eta arimaz biztu zela dionean, zehaztasun garrantzitsua egin behar du: gorputz berpiztua ez da gorputz fisikoa, gorputz “espirituala” baizik edo, hobeto oraindik, **“gorputz aintzatsua”** (Flp 3, 20-21). Ez da espiritualizatua geratu, mamua izango balitz bezala –ebanjelioek ukatzen dute aukera hori (Lk 24, 36-43)-, Jainkoaren aintzaz, jainko biziaz beraz eraldatua baizik.

Beste alde batetik, ikuspuntu historiko-kritikotik, historikotasun irizpideak ezarriz, Pedrok, hilobi hutsa bisitatu ondoren, sinetsi gabe jarraitzen duela erakusten diguten kontakizunak daudela ikus dezakegu. Horrek historikoki horrela gertatu izanaren itxura du. Ikusi genuenez, lehenengo apostoluen ospearen aurka doan guztia historikoki egia izan daiteke. Horrela izan ez balitz, ez zatekeen idatziz jasoko.

#### 6.4.- Agerkunderen kontakizunak

Agerkunderak, Jesusek ikasleekin izandako **elkartze pertsonala** kontaktatzen dute. Berea da beti ekimena eta apostoluen nahiz beste ikasle batzuen artean agertzen da. Bategite hauek **eragiten** dute bakarrik berpizkunderen **sinestea**.

Agerraldiei buruzko kontakizunetan gauza deigarri bat dago: **bat ez etortzea**, lekuei, egoerei eta gertaeren garapenari dagokienez. Lau bertzio desberdin daude, ebanjelari bakoitzeko bat. Testigantzen faltsukeriaren seinale ote da? Alderantziz: hain zuzen ere bat ez etortze horrek hauxe esan nahi du: ebanjelariak ez dutela bat etortzerik nahi izan, “bertzio ofizial” koherentea eskaintzeko. Ez dira kontraesanak saihesten ahalegindu. Nola ulertu hori?

Agerraldien kontakizunen bidez kontaktatzen digute beren esperientzia Jesusen berpizkunderen lehenengo testiguen. Eta berpiztuarekiko topaketaren esperientzia bakoitzaren gogoaren menpe ere badago eta horrek zera eragiten du: batek alderdi jakin batzuei begiratzea, tartean dagoen beste batek, beste batzuk nabarmendu ditzakeen bitartean.

Izan ere, berpiztuarekin bat egitearen esperientzia behaketa enpirikoarekin zerikusirik ez duen esperientzia **mistikoa** da. Ez da gauza bera boligrafo bat ikustea (ikuste hori zeure ikuste-gaitasunaren menpe dago), eta gainezka egiten duen jainko bizitzaren osotasunarekin kontaktatzea (adimen pertsonaletik kanpo dago eta hori, gainera, ezin daiteke beste gauza edo elementu batzuekin alderatu, guztiz originala delako).

Hortik datoz apostoluek beren esperientzia adierazteko dituzten zailtasunak. Horretarako, esanahi berezia duen aditz greko bat erabiltzen dute: “azaldua izatea” adierazten duen **“ophthé”**. Ez darabilte “ikusi” adierazten duen aditz arruntagoa. Horrela zera esaten digute: beraiek berpiztua ikusi zutela, baina ez beren ikuste-gaitasunagatik, beraiei **erakutsia izan zitzaien**, edo ikustera eman zitzaien zerbait bezala baizik. Jesusekin bat egitearen esperientzia **errebeldaziozko** esperientzia da.

#### 6.5.- Zer esan nahi du gure federako “Jesusen berpizkunderak”?

- Lehenengo eta behin, Nazareteko Jesus bizi dela, ez dagoela hilda, esan nahi du. Ez datza norbere memorian irautean, historiako beste gizon eta emakume handien antzera. Izan ere, esan genuenez, Jesus betiko hil izan balitz, bere mezuak ez zukeen zentzurik. Bere mezua delako hain zuzen ere, maitasunaren eta biziaren garaipenean itxaropena arrazoi bakar bategatik izatea: **Bera hemen dagoelako**, Jainkoaren grazia hori agertzera emateko eta **gauzatzeko**. Jesusen **mezua** ezin da bere **personarengandik** banatu (“baina **nik** diotsuet...”).
- Jesusen heriotza bidegabekoa izanenez (eta bere bizitza, bidegabekeriaren aurkako borroka), berpizkundera, heriotzaren gaineko garaipen ez ezik, bidegabekeriaren gaineko garaipen eta historia honetako biktimen errehabilitazio bezala ulertu behar dela esan nahi du. Kristau iragarpena ez da, besterik gabe, “norbait” hilek artetik biztu zela, **Jesus** hilen artetik biztu zela baizik. Eta Jesus biktima bat da, giza historiako biktimarik errugabeena. Kristauok ez dugu, besterik gabe, hilen artetik berpiztean sinesten, historiako **biktimen** berpiztean baizik. Fede hori hildako guztiengana zabaltzea datu nagusi horretatik ondorioztatzen da.

- Giza **gorpuztasuna salbamenezko** esperientzian, hau da, Jainkoarekiko bategite osatzailean, funtsezko alderdia dela adierazten du. Askoz ere errazagoa izango zatekeen giza arimaren hilezkortasunean fedea aldarrikatzea. Honelako irakaskuntzak ez zituzkeen San Paulok, Atenaseko areopagoan, “hilen piztueraz” hitz egin zuenean aurkitu zituen isekak eragingo. Hala ere, apostoluek irmotasunez baieztatutako datua da (nahiz eta azaltzerik ez izan) berpizkundeak giza gorpuztasuna dakarrela.
- Jainkoa leiala dela esan nahi du. Jesusen aldetik bere Erreinuaren aldeko konpromisoa egoteaz gain, Jainkoaren konpromisoa ere badago Bera maite dutenen alde. Horregatik kristau fedea arimaren planteamendu filosofikoa erlatibiza dezake. Arima hilezkorrek ez digu behin-betiko bizitza ziurtatzen, Jainkoaren **leialtasunak** baizik, honek ezin duelako betiko galdu leial izan zaiona.
- Giza **historiak zentzua** duela adierazten du. Baina, kontuz, ez da dagoeneko emanda dagoen zentzua, norbere bizitza **jokoan jarriz** eta **eskainiz** bakarrik jadesten den zentzua da. Eta ez da “tenplura” joatea (nolabaiteko bizitza “erlijioso” izatea) oinarritzat duen eskaintza, historiako garaituen bizitza norbere egitea oinarritzat duen eskaintza baizik. Jesus aginte erlijiosoak kondenatzen du, tenplua eta legea zalantzan jartzearen, biraolaritzat salatuta (txiroenen aldeko jarrera izatearren). Giza historiari eta norbere bizitzari zentzua emango badiogu, ez dugu “sokratua” nabarmenduko, **giza** harremanaren benetakotasuna bilatuko dugu.
- Bekatuen barkamena hasieratik dago berpizkundeari lotuta. Honek zera esan nahi du: bekatuen barkamena gizatasunaren **birsorkuntza** bezala ulertu behar dugula. Biktimaren errehabilitazioak oinaze ororen, batez ere era ezeztazinean gertatu zenaren, kentzea adierazten du. Ez dago zentzurik historiarentzat iraganaren sendatzerik gabe. Bekatua ez da izaera juridikodun errua (legea haustea), egiten duenari eta historia osoari gizatasuna kentzen dion kalte pertsonala baizik. Bekatuen barkamenaren bidez, gizatasuna itzultzen zaie bekatuari eta bere biktimei.
- Jainkoak, Jesusen berpizkundeari, **ez ditu** bere borroak **suntsitzen**, ezta honako indarkeria eta bidegabekeria eragiteko gauza den mundu alferrik galdua ere, eta, alderantziz, galdutako gizatasuna berreskuratzeko benetako aukera ematen die, beren biktimen gizatasunaren deia jasotzen badute.
- Beste hau ere esan nahi du: gure bizitza alda **daitekeela** eta, horregatik, aldatzeko **motibatuta** gaudela. Ez da berpizkudean sinesten, Ama Birjina Lourdesen agertu zela sinesten den bezala, esate baterako. Berpizkudean sinestea norbere bizitza **konprometitzen** duen fedea da. Hauxe dio San Paulok: Jesus berpiztu ez bada, “gizakien artean zoritxarrekoenak” garela, orduan ez delako ezer aldatu historian, eta giza fede eta itxaropen oro hutsa delako. Horregatik, Jesusen jarraitzailearen berpizkudeaganako fedea testigantzarik adierazgarriena hau izango da: gure historian txiroak benetan salbatzen dituen Jainkoaren presentzia agertzera ematen saiatzen den bizitza.
- Azken batean, hauxe esan nahi du: Jesusek arrazoia zuela gizakien arteko eta gizakien eta Jainkoaren arteko harremanak nolakoak izan behar duten aurkeztean. Maitasunagatik norbere burua eskaintzea osotasunaren iturri da, eta **horrexek bakarrik du etorkizuna**.

## 6.6.- Jesusen heriotzaren esanahia gure fedearantz

Berpizkudearen esanahia azaldu ondoren irakur dezakegu Jesusen heriotza salbamenezko gertakari bezala. Horrela ulertuta, Jesusen heriotzak esanahi oso zehatza du gure fedearantz:

- Jesusen heriotza, benetako heriotza da, ez tramite hutsekoa eta oinaze fisiko eta moralaren dramatismo bete da. Bidegabekeria historikoa izan zen. Jesusen heriotza berreroslea dela badiogu –hau da, birsorkuntza eta zentzua dakartzala- zera esan nahi du: gizaki berria (berpiztua) ez dela munduko bidegabekeria kentzeko ahaleginaren emaitza bezala sortzen bakarrik; eta, are gutxiago, **dagoeneko** sortu diren zuzentasunezko baldintza berrien fruitu bezala. Honen eraginez, kristauak aurre egin beharko dio bere misioaren porrot historikoaren benetako aukerari.
- Gizaki berria, historiaren berrerospena, ez da konpromiso **baten “emaitza”**, bizikidetzak makalen odolaren gainean egituratzen duten gizarte eta sistemaren justiziaren alde egiten den **konpromisoan** gertatzen den zerbait baizik. Konpromiso eraldatzaile hori, beraz, zentzuzkoa da fedetik, nahiz eta historikoki porrotean bukatu, nahiz eta, sarritan, kristau militanteak gurutziltzaturik bukatu (bazterretara kanporatua).
- Jesusen gurutzaren bidez, berpizkudean dugun fedea ez da baikortasun merke bihurtzen. Berpizkudeaganako fedea da gizon eta emakume berriaren aldeko gure konpromiso eraldatzailea zuzendu behar duen indarra. Baina kristau itxaropena, konpromiso hori gurutzean bukatzen dela dioskun itxaropen

**argia** dela jakinik (sistemak **nahitaez** isilarazten duelako –edo ospea kentzen diolako- zuzentasunaren alde borrokatzen duena). Horixe adierazten du, agerraldietako batean, berpiztua iltzeen eta lantzaren arrastoez azaltzeak: **berpiztua, gurutziltzatua da**. Gurutzetik igaro gabe gizakia askatzen saiatzen dena ezinbestean eroriko da planteamendu burges kamuflatuan, sistemaren sasi-askatasunean.

- Jesusen gurutzeko heriotza, gizakia, bere egoerarekin bat eginez, zapalkuntzatik askatzeko borondatearen ondorioa da. Kristauaren konpromiso eraldatzailea, beraz, txiroenganako ‘estimua’ afektiboa baino gehiago izango da. **Norbere egindakoa salbatzen da bakarrik**. Bekataria, hain zuzen ere, besteen miseriatik iheska doana da (eta denok egiten dugu). Jesusek guztiz kontrakoa egiten du. Eta ez miseria edo oinazea atsegin duelako, txiroen bizitzak sustatzeko borondateagatik baizik. Gutako bakoitzak Jesusekin eta bere egitasmoarekin bat egiten dugun ala ez neurtzeko irizpide nagusia, gure bizitzarako egitasmo pertsonalak edo pastoral egitasmoak (parrokiakoak, eskualdekoak edo elizbarrutikoak) egituratzerakoan, txiroei ematen diegun garrantzia izango da.
- Jesusen berpizkundea gizakiaren **errehabilitazioa** da, gurutzeko heriotza **barkamenaren** adierazpen izan zelako. **Alde batetik** emaniko barkamena, inolako damu gabe, hiltzerian zegoenari barre egiten ziotenentzako ordainik gabe. Horregatik, gizakiaren errehabilitazioa, indarkeriaz eta gorrotoz jositako gurea bezalako gizaratean, gizarte zuzentasunaren sustapenaren aldeko konpromisoa izateaz gain, barkamenaren sustapena ere izango da. Ez dago elkarganatzerik barkamenik gabe. Honek gure etsaiaren aurrean desarmatuz eratorritako kostuak –aurreikusteko modukoak- geure gain hartzea dakar. Beste masaila jartzea ez da norbera meneratzeko ekintza etikoa hutsa (nolabaiteko balizko altuera morala adierazteko); ekintza **mistikoa** da, hitzaren adierarik sakonenean: besteak zuzentzen didan txarkeria onartzea da, baina, dena dela, bere erabateko ontasunean eta bere barruan dituen balio eta aukeretan konfiantza dudala adieraziz. Eta ondorengo adieraziz: hainbeste baloratzen dudala non ez nagoela bera dena ukatzea eramango nauen indarkeriazko gurpil zoroa janaritzeko prest.

#### 6.7.- Eliza, berpiztuaren elkarte

Agerraldien pasarteetako bat bereziki argitzailea da Elizaren izaerari dagokionez: Emauseko ikasleen pasarte.

Pasarte horretan, gurutzeko porrotaren aurrean fedea eta itzaropena galduta, Jerusalemik bazihoazen bere ikasleentako birengana hurbiltzen da Jesus. Beraiekin solasean jarduten du eta beraiekin egiten du bidea. Bitartean, idazkien esanahia azaltzen die. Ilunabarrean, aurrera egiteko keinua egiten du, baina beraiek afaltzera gonbidatzen dute. Eta afarian, Jesusek ogia bedeinkatu zuen, zatitu eta eman egin zien. Orduan ezagutzen dute.

Testua, egia esan, kristau elkartearen zentzuari eta eukaristiari buruzko katekesia da. **Ogia zatitzean** (lehen izen hori ematen zitzaion eukaristiari) aitortzen dute bertan eta bizirik dagoela. Baina horretarako, aurretik, ezinbesteko urrats batzuk daude: lehenengo, Jainkoaren Hitzaren entzute zabal eta zintzoa; bigarrenez, jarraipen (bide) konpartituaren esperientzia; hirugarrenez, Jainkoarekiko adiskidetasun eta intimitatea bilatzeko eta bestearengana irekitzeko eta bestea onartzeko jarrera (“gera zaitez gurekin...”).

Baldintza hauetan, nabarmena da Jesus berpiztuaren presentzia bizi eta ekintzailea beretarren artean. Elizak, bestalde, berpiztuaren jarraitzaileen elkarte bezala, itzaropen eta bizi tresna izan behar du. Giza duintasun eta eskubideak historikoki jokoan dauden auzietan konprometitu behar du. Bizia sortuko badu, bere egin behar ditu munduko txiro eta zapalduen bizia eta auzia.

## ELKARRIZKETARAKO GALDEKETA

- Ebanjelioetako ze pasartek sortu dizkizu zalantzak bere historikotasunari buruz?
- Ebanjelioei dagokienez, zer da adierazgarriena? Zerk definitzen ditu “ebanjelio” bezala?
- Ze alde antzematen duzu transmititu zaigun Jesusen irudiaren, eta Jesus historikoaren artean?
- Zenbaterainoko eragina du Jesusen bizitzan bere jatorri sozio-kultural juduak?
- Zer nabarmenduko zenuke bere bizimoduan?
- Eta bere nortasun edo izamoldean?
- Zertan oinarritzen du Jesusek bere itxaropena gizaki bezala?
- Zertan oinarritzen du bere askatasun pertsonala?
- Nola ulertu zuen Jesusek Jainkoaren, bere Erreinuaren presentzia?
- Nolakoak dira Jesusek gauzatu zituen jarduera askatzaileak?
- Zure iritziz, nola ulertu behar ditugu sendaketak, exortzismoak eta gainerako mirariak?
- Eta gaur? Nolakoak izan behar dute Jesusen jarraitzailearen jarduera askatzaileek?
- Zergatik eragin ote zuen Jesusen bizitzak aginte erlijioso eta politikoarekiko liskarra? Juduaren ikuspuntutik, zergatik zen Jesus hain arriskutsua federako?
- Ikusi dugunaren argira, nola ulertu behar dugu “nire atzetik etorri nahi duenak, har bedi bere gurutzea eta jarrai diezadala” Jesusen esaldia? Zer da gurutzea kristauarentzat? Edozein sufrimendu dei dezakegu “gurutze”?
- Jesusen jarraitzaile izango ginateke Bera berpiztu ez balitz?
- Jesusen heriotza eta berpizkundearen esanahiaren argira, nola azalduko zenuke bere jainkotasuna? Zer adierazten dizu Jesus “Jainkoa dela” entzuteak?

## KBNErako GOGOETA PERTSONALERAKO GALDEKETA

- Jesusek Erreinuaren alde jarri zuen jokoan bere bizia, hau da, Jainkoari protagonismoa eman nahi izan zion pertsonen bizitzan eta gizartearen egituraketan. Baina Jainkoaren protagonismoa onartzeak nire ekintza eraldatzailearen protagonista nagusia ez naizela ni neu onartzea dakar. Kostatu egiten ote zait Jainkoaren protagonismo hori onartzea? Ala zer uste dut, Jainkoaren Erreinia neure ahaleginari esker bakarrik ezarriko dela?
- Jesusen gurutzeko porrot historikoa onartzeak nire egitasmoek porrot egin dezaketela onartzea esan nahi du. Nolako jarrera dut nire KBNEaren edo norbere aurenko konpromisoaren helburuek, behin eta berriro errealitatearen gogortasunarekin talka eginez, porrot egiten dutenean?
- Gurutzeko barkamena, bizitzako barkamenezko jarreraren adierazpen gorena da. Barkamenezko jarrera, besteei errukia eta zentzua bideratzeko aukera da. Sortzen ote dut nire inguruan itxaropen eta zentzuzko esparrutik? Ala “ezer egiteko aukerarik” ematen ez didan jarrera ezkorraz kutsatzen naiz?
- Ze “berpizkunde” esperientzia dago nire bizitzan? Eta nire ezagunen bizitzan? Adi nago inguruan sortzen diren bizi historien aurrean? Horiekin janaritzen da nire bakarkako otoitza?
- Benetan sinesten ote dut Jesukristo bizirik dagoena? Ez zela berpiztu egiaztatuko balitz, zertan aldatuko litzateke nire bizitza?
- BERPIZTUA bidegabe gurutziltzatua da. Hunkitzen ote nau bidegabekeriaren biktimen egoerak? Ba ote du eraginik niregan beren saminak? Ala, beharbada, ihes egiten ote dut beraien oinazetik, beren (toxikomanoak, etorkinak, langabetuak, ETAREN biktimak...) egoerari buruzko azalpenetan edo aitzakietan babestuz?
- Zenbateraino konpartitzen dut nire bizitza historiako “galtzaileekin”? Nire inguruko pertsona apalen egoerak, Jesusen Jainkoarekin bat egiteko aukera dira? Azaltzen dira nire otoitzean txiroen arazoak eta, batez ere, aurpegiak?
- Jesus heriotzara eraman zuen bekatua ez da bere borroaren txarkeria pertsonalaren fruitu bakarrik, zorrotz egituratutako sistema erlijioso eta legalarena baizik. Onartzen dut gure Lehen Munduko eta gure Elizako egiturazko bekatuzko prozesuetan dudaren erantzukizuna?
- Hauxe izan zen Jesus akabatu zutenek erabili zuten justifikazioa: “hobe da gizon bakar bat hiltzea, herri osoaren orde”. Zenbaterainoko lehentasuna ematen diogu gure pastoral egitasmoen eta konpromisoaren eraginkortasunari pertsona jakinen gainetik? Politika kutsudun indarkeriaz bustitako gure herrian, nola susta dezakegu gizabanakoen eskubideen erabateko lehentasuna eskubide kolektiboen gainetik?
- Biktimei emandako lehentasunetik ebaluatu behar ditugu gure egitasmo guztiak, bakarkakoak nahiz pastoralak. Esate baterako, ze leku du txiroen aldeko zerbitzuak eta zuzentasunaren auziak gure elizbarrutiko pastoral eraberritzerako egitasmoan? Ze ekarpen egin dezakegu mugimendu bezala honen haritik? Nolako presentzia dugu Jesusen jarraitzaile bezala –bakarka eta mugimendu bezala- txiroen duintasuna eta eskubideak sustatzen saiatzen diren foroetan, hau da, gizateriaren auzia jokoan dagoen lekuetan?
- Pastoral ekintzarako egitasmoek eta egiten ditugun kanpainen, bidegabekeriaren alderdi estrukturaletan eragin nahi dute, ala alderdi “pertsonalean” oinarritzen gara bakarrik edo batez ere? Beste mugimendu eta elkarte batzuekin koordinatzen gara, gazteen eskari eta kezkei erantzuteko? Non jartzen da jokoan gazteen munduaren ebanjelizatzearen funtsezkoena?
- BERPIZKUNDEAN sinestea, gizakiaren errehabilitazioa bidezkoa dela sinestea da. Ba ote dut konfiantzarik gizaki ororen erabateko ontasunean? Benetan sinesten ote dut ez dagoela birgaitu edo birsortu ezin daitekeen pertsona edo egoerarik? Ala, alderantziz, pertsona eta talde batzuen aurrean, ezertan hasi baino lehen, etsi egiten ote dut?

# BIBLIOGRAFIA

## 1.- Jesusen historikotasunari buruz:

- H. Cl. Kee, *¿Qué podemos saber del Jesús histórico?*, El Almendro, Kordoba, 1992.
- J. R. Geiselman, *Jesús el Cristo. 1. La cuestión del Jesús histórico*. Alfil, Alkoi, 1971.
- M. Herranz Marco, *Los evangelios y la crítica histórica*, Cristiandad, Madril, 1978.
- X. Léon-Dufour, *Los evangelios y la historia de Jesús*, Estela, Bartzelona, 1966.
- Ch. Perrot, *Jesús y la historia*, Cristiandad, Madrid, 1988.
- A. Piñero eta J. Peláez, *El Nuevo Testamento. Introducción al estudio de los primeros escritos cristianos*, El Almendro, Kordoba, 1995.
- W. Trilling, *Jesús y los problemas de su historicidad*, Herder, Bartzelona, 1970.
- Ph. Vielhauer, *Historia de la literatura cristiana primitiva*, Sígueme, Salamanca, 1991.
- H. Zimmermann, *Métodos histórico-críticos en el Nuevo Testamento*, Editorial Católica, Madril, 1969.

## 2.- Jesusen garaiko giro eta gizarte juduari buruz:

- M. Alcalá, *El evangelio copto de Tomás. Palabras ocultas de Jesús*. Sígueme, Salamanca, 1989.
- F. García Martínez, *Textos de Qumrán*, Trotta, Madril, 1997.
- F. García Martínez eta J. Trebolle Barrera, *Los hombres de Qumrán. Literatura, estructura social y concepciones religiosas*, Trotta, Madril, 1997.
- H. Guevara, *Ambiente político del pueblo judío en tiempos de Jesús*, Cristiandad, Madril, 1985.
- H. Stegemann, *Los esenios, Qumrán, Juan Bautista y Jesús*, Trotta, Madril, 1996.

## 3.- Jesusen ministerio publikoari buruz:

- L. Boff, *Jesucristo y la liberación del hombre*, Cristiandad, Madril, 1981.
- J. -D. Crossan, *Jesús: Vida de un campesino judío*, Crítica, Bartzelona, 1994.
- J. -D. Crossan, *Jesús: biografía revolucionaria*, Grijalbo-Mondadori, Bartzelona, 1996.
- Ch. Duquoc, *Cristología. 1. El hombre Jesús*, Sígueme, Salamanca, 1971.
- Ch. Duquoc, *Jesús, hombre libre*, Sígueme, Salamanca, 1974.
- J. I. González Faus, *Acceso a Jesús*, Sígueme, Salamanca, 1979.
- J. I. González Faus, *La humanidad nueva. Ensayo de cristología*, Sal Terrae, Santander, 1994.
- J. R. Guerrero, *El otro Jesús*, Sígueme, Salamanca, 1976.
- E. Käsemann, *La llamada de la libertad*, Sígueme, Salamanca, 1974.
- H. Küng, *Ser cristiano*, Trotta, Madril, 1996.
- R. Latourelle, *Milagros de Jesús y teología del milagro*, Sígueme, Salamanca, 1990.
- S. Legase, *El proceso de Jesús*, Desclée de Brouwer, Bilbao, 1995, 2 ale.
- X. Léon Dufour (arg.), *Los milagros de Jesús*, Cristiandad, Madril, 1979.
- J. Moltmann, *El Dios crucificado*, Sígueme, Salamanca, 1975.
- E. Schillebeeckx, *Jesús, historia de un viviente*, Cristiandad, Madril, 1991.
- J. Sobrino, *Jesucristo liberador*, Trotta, Madril, 1993.
- J. Sobrino, *La fe en Jesucristo*, Trotta, Madril, 1999.
- J. J. Tamayo-Acosta, *Hacia la comunidad. 5. Por eso lo mataron*, Trotta, Madril, 1998; Id. 6. *Dios y Jesús*, Trotta, Madril, 2000.

**Comisión de Formación-Heziketa Batzordea**

**Geideak Movimiento de Jóvenes de Acción Católica  
Geideak Ekintza Katolikoko Gazteen Mugimendua**

**Publicado en septiembre de 2003  
2003ko irailan argitaratuta**